

Ernest
HEMINGWAY

KORO NAVARRO

Fiesta
Eguzkia jaikitzen da



Hitzaurrea: Anjel Lertxundi

erein & igela

ERNEST HEMINGWAY

Fiesta
Eguzkia jaikitzen da

Koro Navarro
Itzultzailea

erein & IGELA

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.


Jatorrizko izenburua:
FIESTA: THE SUN ALSO RISES

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.

© Hemingway Foreign Rights Trust
Liburuaren azala eta diseinua: Antton Olariaga
© Itzulpenarena: 2021, Koro Navarro
© Hitzaurrearena: 2021, Anjel Lertxundi
© Argitalpen honena: 2021, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.

ISBN: 978-84-9109-578-1
LG: D 237-2021



ERNEST HEMINGWAY (1899-1961)

HITZAURREA

Idazteko makina, kamera

Anjel Lertxundi

Epikak publikoa behar duela esan ohi da, lekukorik gabeko epika bakartiek nekez jasotzen baitute txalorik, baina izan litezke oso pizgarriak nerabe baten ordu bakartietan. Halaxe gertatu zitzaidan, behintzat, niri Ernest Hemingwayren *Agurea eta itsasoa* nobelan oinarritutako izen bereko filmarekin. Santiago, laurogeitaka urteko agure arrantzale bat, setatuta bizi da oraindik kemena duela erakutsi nahirik. Eta erakusten du, baina ez porrotaren ozpinik gabe. Horra bazka masokista gazi-goza nerabe baten sentimendu gorabeheratsuentzat. Filma ikusi eta laster, nobelaren euskarazko itzulpena, Anjel Goenaga jesuitak egina, irakurtzeko *gonbita* egin zigun irakasleak. Ez nengoen euskaraz irakurtzen ohitua, arrotzak egiten zitzaizkidan testuko hitz asko; Hemingwayren sintaxia ez da bihurria, eta gaitz erdi, bestela baldarrago egingo nuen irakurketaren aldapan gora baldin eta nahiko fresko izan ez banitu filmeko irudiak: Santiago marinel zaharrak Spencer Tracyrena zuen aurpegia nire irakurketan.

Aitor dut, hitzaurre hau idazteko gonbidapena jaso baino lehen, Hemingwayren obretan oinarritutako film gehiago ezagutzen nuela haren liburuak baino. Aitor dut, gainera: Hemingway hil eta urte batzuk geroago, haren

paper-mazo aurkitu berri bateko hiruzpalau gutunetan, harroputz kontatzen du –erronka betean– ehun eta hogeita bi soldadu aleman preso eta babesgabe metrailatu zituela plazer eroz. Kostata saiatu nintzen bi konpartimentutan gordetzen haren ipuinei zein estiloari nien estimua eta autoreari hartu nion nazka. Ez da, beraz, harritzeko Koro Navarrok deitu zidanean kortesia eginez *Fiestaren* hitzaurrea idatziko nukeen, lehenbizi Hemingwayren gutunetako hutsalkeria kriminala etorri izana burura; aldi berean, ordea, handia baita Navarroren itzultzaile-lanari diodan estimua, nire buruari hasi nintzaion esaten ez ote nuen abagune ona autore handi baten obrara itzultzeko: Hemingwayren gutunetako hutsalkeria gaiztoak ez zezala literaturaren txundimena abolitu. Ez naiz damu Hemingwayren obrara itzuli izanaz; basakeriari dagokionez, higuina eragiten segitzen du.

Kuliska Sortak 1963an argitaratutako *Agurea ta itxasoa* erreskatatu dut ahanzturaren hautsetatik. Azpimarra dezente daude bertan, lexikoarekin lotuta gehienak. Azpimarren artean badira esaldiak ere. Maskulinitatearen erreferentziak dira dezente: Hemingway ari da Santiagoren ahotik eta mutil nerabe baten subkontzientea nire azpimarretatik: «Gizona eskasa duk hegazti eta pitzia handien aldean». «Gizon gisa sufritzen ikasi zala!». «Gizona desegin dezaketek, ez ordea menderatu». Santiagoren azken esaldia garaipenaren amorraziozko oihua da egundoko ezpata-arrain bat menderatzea lortu duelako hiru egunetako borroka etenik gabe baten ondoren.

Salbu dira agurearen desafioa eta ondra, ausardia eta autoestimua... Eta sekulakoa baita lortu duen balentria, toletetan lotu du ezpata-arraina ontziko kroskoaren kontra, herritarrek bere adorea ezagutu dezaten portura iritsitakoan. «Gizaseme zahar, nekatua nauk. Baina anaia hori [ezpata-arrainarengatik ari da] hil diat». Portura bidean, ordea, marrazoak-eta arrantzatua jaten ari zaizkio, ezpata-arrain tzarra hezurretan uzteraino.

Garaipenik mingarriena, porrot bihurtzen dena. *Agurea eta itsasoa* izan zen Hemingwayk hil aurretik argitaratutako bere azken nobela. Liburuak sekulako arrakasta lortu eta handik bi urtera doi Nobel Saria eman zioten. Zoriak Santiagori ezpata-arrainaren saria bezala, baina zahartzaroan, inork sosik ematen ez zuenean haren kemenaren alde. Hemingwayk, ordea, panikoa zion zahartzeari, eta, 62 urterekin, «hitzik ez; keinu bat» egin zuen, Cesare Paveseke baino hamar urte geroago. Somnifero pila hartuta Paveseke. Eskopeta ahoko zuloan sartuta Hemingwayk, xehetasun handiz kalkulaturako tiro batekin. Indarrak ahitu eta zimurrak ugaritu baino lehen. Eta, batez ere, bere sintaxi gaztea zahartzen ikusi gabe. Krimenei dagokionez, berriz, eskuen artean duzun *Fiesta: eguzkia jaikitzen da* honetako Jakek dio ikaragarri erraza dela edozer gauzaren aurrean gogorra sentitzea egun argiz, «baina gauez gauzak bestelakoak» izaten direla, eta ezin jakin Hemingwayri memoria zenbateraino ari zitzaion erraiak erretzen katuari sakatu zion gau hartan.

Fiesta: The Sun Also Rises. Fiesta (1926) da Hemingwayren lehendabiziko nobela (aurretik bazituen argitaratuak ipuin eta poema batzuk). *Agurea eta itsasoa* (1952), aldiz, hil aurretik argitaratutako haren azkena da. Gaztetasunaren indarra, eguzkia bezala jaikitzen; zahardadearen ahuldadea eguzkia bezala jaisten eta jaisten. «Kontrapuntu isilek iratzarririk hitz egiten diote bizitzaren ametsari», idatzi zuen Quevedok behinola.

Lehen Mundu Gerra bukatu berriaren eta Depresio Handiaren arteko urte ekonomiko kitzikagarriak izaten ari dira estatubatuarrentzat, ekonomiak aparrak bezala egin du gora, euforia biziaren urte eroak dira, jazzarenak, zinema mutuarenak. Ingelesezt *roaring twenties* deituriko urrezko urteak. Garai euforiko haren espiritu bitalista islatzen du *Fiestak*, plazera, festa eta alkohola bezalako osagarriekin. Jakek, narratzaileak, ondo laburbiltzen du garai hartako filosofia: «Etikaren parte guztiz inportantea da inoiz ez ematea lanean ari zaren itxura».

Kontakizunari dagokionez, Parisen bizi diren eta idazle izan nahi duten kazetari amerikar batzuen ibilerak eta festarako gogoak kontatzen ditu Jake Barnesek, liburuko narratzaileak. Horrela esanda, obrak ez dakar muntako ezer berezirik, ez bada oso obra atipikoa dela: badu trama estilizatu bat, hari nagusietakoa, zeina den Brett Ashley erizainak kuadrillan eragiten dituen erreakzio sentimentalen kontakizuna; baina liburuak asko du erreportajetik ere (sanferminak protagonismo handia du); bada, gainera, oroitzapen-liburua; eta bada, halaber, bidaia-liburua ere. Obra hibrido bat dela esan liteke *avant la lettre*,

askotarikoa, baina osagai horiek guztiak biltzen dituen zakuak izen doitu bat du, eta da nobela.

Ez, *Fiestan* kontatzen dena ez litzateke bereziki interresgarri, ez balitz bertan gertatzen diren peripezia egunerokoak kontatzeko moduarengatik. *Kixoteari* gertatzen zaio. Edo *Denbora galduaren bilari*.

Jakes Barnes, *Fiesta* nobela autobiografikoko narratzaile eta protagonista, Turgenev-en *Ehiztari baten memoriak* irakurtzen hasten da mozkorraldi betean. «Lehenago ere irakurria neukan, baina orain berria ematen zuen», esaten du Barnesek. Hemingwayk berak esanda dakigu nerabezaroan irakurri zuela Turgeneven obra eta markatuta utzi zuela. Ispilu bat izan omen zen berarentzat. Pentsa dezakegu Hemingwayri ehiztari-ibilerak oroitarazten zizkiolako izango zela. Aita medikua zuen idazleak, eta aita-sumeak sarritan joaten ziren zaldiz indioen tributara; aitak indio gaixoak artatzen zituen bitartean, semea arrantzan eta ehizan ibiltzen zen, igeri egiten zuen erreka hotzetan. Gaztaroan, berriz, gimnasia eta boxeoa praktikatu zituen (indar fisikoaren zaintzan oinarritutako maskulinitatearen garaiak ziren).

Baina bitalismoaren ispilu izateaz gainera, kontatzeko modu berri bat dago *Ehiztari baten memoriak* liburuan: efikazia handiko artea da Turgeneven akzioa eta natura lotzeko modu distiratsua, eta *Fiestan* ere modu bikainean ageri da biak lotzeko artea. Kontakizunen lasta eta galgarri izatera iritsita zeuden XIX. mende bukaerako nobeletako

deskribapenak, pasarte lehorrak ziren, *natura bilak* bezain disekatuak, funtzio narratzailerik gabeak, eta irakurleak, astunak egiten baitzitzaizkion, saltatu egiten zituen. Baina deskribapena ez da apaindura bat: naturak, bizia izango bada literarioki, bat egin behar du akzioarekin. Zinema –fotogramen txirikordarekin lortutako mugimenduaren arte sortu berria– konpetentzia zen (eta da) literatura-arentzat, baina baita bide-erakusle ere: zinema eskuzabala izan zen Hemingwayrekin –haren obra dezente egokitu da–, baina idazleak ondo irabazia zuen saria, ondo ikasi zuelako lezioa: haren idatzietako soa mugitu egiten da, zeharka begiratzen du, jiratzen da, pikatuak eta kontra-pikatuak egitera ausartzen da, travellingak egiten ditu Parisko *bateau-mouche* batean, trenez, autobusez edo taxian doanean. Eta begiradak harrapatu ezin duena –pertsoneien barne-mundua– elkarrizketek erakusten dute (zinemak bezala, hain zuzen).

Diziplina fisikoarekin batera (Nietzscheren supergizona eredu), naturaren obserbazioa ere garatu zuen Hemingwayk mutikotan tribu batetik bestera zebilenetan aitarekin. Ikusten zituen paisaiekin betetzen zituen begiak eta irudimena, ordu asko egiten omen zituen animalien, lainoen, ur-lasterren, eguraldiaren erritmoari erreparatzen.

«Haize mehe bat ibiltzen zen beti, baita eguneko ordu beroenetan ere. Erreka hotz batean sartuta ibiltzea atsegina izateko bezainbesteko beroa egiten zuen, eta eguzkiak lehortzen zintuen atera eta ibai-bazterrean esertzen

zinenean», dio Jakek Auritz inguruetakoko uda hasierako giroagatik.

Fiestan deskribatutako euskal paisaiak ondo ezagutzen dituen irakurleak –Baiona eta Iruñea, biak lotzen dituen errepide zaharra, Iratiko inguruak...– miraz kontrastatuko du bere begirada Hemingwayren begiradaren geruza fin distiratsurekin, esaldi-kolpe zehatz eta azkarrez eraikitako paisaia inpresionistekin. Nago orain arte ez bezala ikusi/imajinatuko dituela paisaiok, Hemingwayren begiradaren jabe ez izatearen nostalgia sentitzeraino. Niri hala gertatu zait behintzat.

Deskribapenok ez dira, ordea, kontakizunean –bidean– egindako pausa batzuk, arnasa hartzeko etenak, are gutxia-go betelanak: beti daude akzioarekin lotuta, dinamikoak dira eta ez *natura hilak*. Alokatu duten taxiak Baionatik Iruñera daramatza Jake eta lagunak aldapan behera: «Errepidea zuria zen eta hautsez betea zegoen, eta hautsa gurpilen azpian altxatu eta airean zintzilik geratzen zen gure atzean». Begi bistakoa dena di-da kontaktzen du: «Errepidea mendateko gailurretik joan zen eta jaitsi egin zen gero, eta gidariak bozina jo behar izan zuen, eta abiada moteldu, eta alde batera egin errepidean lotan zeuden bi asto ez harrapatzeko»; begiak osorik hartzen ez duena, ordea, hobe probabletzat jotzea: «Euskal Herrian lur guztiak oso aberatsa eta berdea ematen du».

The Paris Review aldizkariak hainbat idazle handiri egindako elkarrizketak argitaratu zituen 1953-1963 urte bitartean,

gero liburu batean bilduak. Tartean, Hemingwayri. Kazetariak galdetu zion: «Zuk gomendatuko zenioke kazetari-lana idazle gazte bati?». Ezaguna da Hemingwayren erantzuna: «Kazetari-lanak ez dio kalterik egingo idazle gazte bati... baldin garaiz abandonatzen badu [...]». Esaldi biribila da, gogoan gordetzeko modukoa. Baina ez da aipatzen Hemingwayk horren segidan esan zuena: «Horra hor gehien errepikatu eta lardaskatu den topiko bat, eta barkamena eskatzen dut bertan erortzeagatik». Baina anatema geratu da: kazetaritza pozoia omen literatura egiteko.

Anatemen gainetik, kazetaritzak –kazetaritza onak– badu noski bere estetika, zeina oinarritzen baita hitzaren bidez emandako lekukotasunean, objektibotasun ezinezkoa lortu nahiaren bulkada utopikoan, hitz justuaren antsian, pertsonen eta egoeren argazki ahalik errealistenak eskaintzeko anbizioan, irakurleari luzatutako sinesgarritasunaren bostekoan... Esandako guztiak batere kalterik ez literatura errealistari.

Lehen Mundu Gerra aparteko arragoa izan zen kazetaritzarentzat, Estatu Batuetako egunkari boteretsuenak gerra-korresponstalak bidaltzen hasi zirenean Europako gerrara. Hemingway *Kansas City Star* egunkarian ari zelarik hasi zen Gerra Handia, eta Italiara joan eta gerran ibili zen, baina ez kazetari, ezta soldadu ere, anbulantzia bat gidatzen baizik. Ugariak dira gerraren erreferentziak han-hemen, *Fiestan* ere badira, jakina, baina gutxi eta kontu pertsonalekin lotuak. Pertsonaiak –*urte zoroen* espiritua da–, gerrari bizkarra emanda bizi direla ematen

du, edo nostalgiaz gogoratzen dute primeran ibili zirela esanez behin baino gehiagotan. Handik urte batzuetara, jada idazle kontsakratua zela *Fiestari* esker, Hemingwayk Espainiako Gerran hartu zuen parte korrespontsal gisa («1936ko uztailetik aurrera, bi urte eta erdiz, ohikoa zen munduko kazetari onenak topatzea Pirinioen hegoaldean», dio Hugh Thomas historialariak). Hemingwayk frontetik bidaltzen zituen kroniketan kazetari handi bat dago adituen ustez; gerra hartako esperientzian oinarritu zuen *For Whom the Bell Tolls* («Norengatik ari dira kanpaiak»); nobelan artista handi bat dago.

Kazetaritza egin eta literatura sortu. Hemingwayk erruz erakutsi zuen bateragarriak direla biak, baita haren belaunaldi bereko Faulkner, Steinbeck, Dos Passos eta beste idazle batzuek ere... Ez ziren, ordea, kazetaritzaren hainbat baliabide ustiatu zuten idazle bakarrak, baziren Mendebalde osoko lurretan bidaia berdintsua egiten ari ziren kazetari-idazle handiak: Joseph Roth, George Orwell, Vassili Grossman, Chaves Nogales, Vasco Pratolini...

Mendebalde osoko fenomeno berri baten aurrean gaudede. *Belaunaldi galdua* etiketa aipatzen denean, Hemingway, Steinbeck, Faulkner, Dos Passos..., etortzen zaizkigu burura, guztiak estatubatuarrak (Scott Fitzgerald ere sartu ohi dute zerrendan, nahiz ez zen gerran izan). Fenomeno estatubatuarra ematen du. Baina deituraren sorrerak zentzu zabalagoa du jatorrian, Hemingwayk berak *A Moveable Feast* (gaztelaniaz «París era una fiesta») liburuan ematen duen argibidean. Gertrude Steinek tailer mekaniko bateko nagusiari entzun omen zion espresioa lanean arreata gutxi

jartzten zuen gazte bategatik gaizki esaka ari zela: «Gerran ibili diren gazte guztiak belaunaldi galdua dira». Steinek ezagutzen zituen idazle hasiberriei aplikatu zien esaldia: «Zuek guztiak belaunaldi galdua zarete». Eta Hemingwayk Parisen zebilen lagun talde estatubatuarrari soilik aplikatu zion.

Esaldiak onartzen du zentzu zabalagoa ere, eta aplikagarria zaie gerran parte hartu zutenen han-hemengo idazleei. Desberdintasun nagusia, estatubatuarreri urruti geratzen zaiela Mundu Gerra, bertan parte hartu bazuten ere; europarrentzat, ordea, oroitzapena bera ere latzegia da gerra osteko krisiaren erdian; gainera hasita daude usaintzen faxismoaren ongarriak.

Esaldi laburrak, sintaxi bihurrik ez. Ursula K. Le Guin idazleak esaten du Hemingwayrengatik *Contar es escuchar* liburuan: «Nahiago zuen bertan seko hiltzea sintaxi gehiegi izatea baino». Sintaxi *gebiegiak* prosa ito dezake, ilundu, nahasi, bide bihurrietan barrena eraman. Zer kontatu eta zer iradoki nahi den, hartarakoxea behar du prosak. Sintaxia erritmoa da, mugimendua, zineman fotogramen muntaketak eragiten duen fenomenoarekin aldera daiteke. Gogoetaren edo elukubrazioaren edo abailduraren ibilerak ez dakar kontakizunaren, ateraldiaren mugimendu bera. Baina horietan ere bizitasuna lortzeko ahalegina egiten du Hemingwayk. *Roaring twenties* garaiko euforia bizi dute *Fiestako* gazteek eta horixe transmititzen digu Hemingwayk, baina hori ez da lortzen testuan zehar

kuadrillako lagunek edaten dituzten ehunka alkohol botilak aipatze hutsarekin.

Nobela guztian zehar zinemaren aipamenik ez badago ere –behin ageri da *pelikula* hitza, baina zentzu figurati-boan–, kamera baten begirada da narratzailearena. Gertakarien mugimenduak jasotzen ditu, baita sotilenak ere, eta kontakizun osoan erritmo bizi-bizia da nagusi; baina begirada iritsi ezin den egokieretan (mozkorraldi bateko eldarnioan, gerrako oroitzapenen bat kontatzerakoan, libururen bati buruzko iruzkinen bat egiterakoan...) erritmoak beste aire bat hartzen du bizia izateari utzi gabe. Ez naiz jatorrizkoaren erritmoa juzgatzeko gai, baina Koro Navarrok euskaraz emandakoa eredugarria da euskarazko prosarentzat. Ekonomikoa bezain efikaza. Edozein prosa-klasetan ardura handia hartu beharra baldin badago idazterakoan, berebiziko ardura eskatzen du perpaus labur lasterrez osatutako prosa batek, zaila da paradoxikoa ematen badu ere, eta egingo nuke ustezko erraztasunak beste koska bat estuago egitera behartu duela itzultzailea, hain zuzen ere itzulerraza ematen duelako.

Kontu jakina da elkarrizketa ez diskurtsiboek erritmoan izan ohi duten zerikusia. *Fiesta* elkarrizketez josita dago, baina ez dira tearen orduko jardun patxadatsuak, kuadrilla bateko partaideen di-da etengabea baizik. Nobelako protagonista korala baita –narratzailea eta kuadrilla–, nola segitu nor den hau edo hura esan duena, nola jakin nork zer esan duen denak ia beti ia batera ari direnean, sarri gainera ironiaz edo zehar-esanez betetako kalaketan, auto-txokeak elkarri talkaka bezala? Ingelesezt ez bezalako

zailtasuna luke euskarazko itzulpenak hitanorik gabe. *Fiestaren* kasuan, gazte-kuadrilla baten jardunari sinesgarritasuna emateaz gainera, irakurleak bide-makila aparta du hitanoa elkarrizketan aurrera egiteko. Hitanoari esker, irakurlea ez da galduko, egia, baina ez da aski: elkarrizketa koraletan generoa ez da arazo bakarra, esaldien modulazioak izaten du zer esana. Alegia, pertsonaia bakoitzak ahots propioa behar du. Jakek, Brettek, Cohnek ez dute berdin hitz egiten. Molièrek-eta argi zeukaten, ez dakit gaurko idazleok hala daukagun. Hitzok idazterakoan Koro Navarro ari naiz imajinatzen nobelako pertsonaiei aurpegia jartzen, eta aurpegiarekin, ahotsa.

«Ni naiz kamera, kameraren aurrean gertatzen dena kontatzen dut». Hemingwayren esaldi bat izan zitekeen. Ez da. Baina *Fiestako* narratzailea kamera bat da, eta kamerak harrapa dezakeena ematen du:

«Dantzan ari ginela, Bretten sorbaldaren gainetik begiratu eta barran zutik ikusi nuen Cohn, Bretti erreparaka oraindik:

»—Beste konkista bat egin dun —esan nion Bretti».

Lesio sendaezinen bat eragin zion istripua izan zuen Hemingwayk Lehen Mundu Gerran. Idatzi batzuetan —tartean *Fiestan*— idazleak ematen du istripuaren berri, baina inoiz aipatu gabe lesioaren nolakoa. Zaindu zuen erizainarekin maitemindu zen. Harremanak ez zien askorik iraun. Erizaina ez omen zuen sekula burutik kendu.

Fiestako Brett Ashley da:

«—Borondatezko erizaina zuan gerran ni egon nintzen ospitalean. [...]

»—Mikaztuta hitz egiten duk.

»—Barkatu. Ez nian asmo hori. Datuak eman nahi nizkian, besterik ez».

Lesioak bizitza eta literatura markatu zizkion, hortik lagunak Jakeri egozten dion mikaztasuna, eta pentsatzekoa da lesioaren benetako izaera ez ezagutzeak jakin-mina eta esamesak eragingo zituela lagun-taldean, zeren haietako batek esaten dio Jakeri:

«—Talde batek ziok inpotentea haizela.

»—Ez —esan nuen—. Istripu bat izan diat.

»—Hori ez aipatu sekula —esan zuen Billek—. Ezin aipatu den gauza-klasea duk. Horrexegatik, gauza misteriosua bihurtu behar huke».

Eta horixe egiten du Jakek, inpotentziaren «gauza misteriosua» literatura bihurtu, eta trama sotil bat lotu hari erdi ezkutu batekin. Hariari segitzeko, irakurleak aski izango du kameraren mugimenduari erreparatzea Brett Ashley agertzen den aldiro. Inpotentzia «ezin aipatu den gauza-klasea» dela esaten dio Billek Jakeri. Aipatu, agian ez, baina ikusi bai. «Gauza-klase» horrek eragiten dion tormentua, ia klandestinoki eta maskulinitate konplexatu batez eramana, ari zaigu erakusten Jake bere kameraren mugimenduekin. Horixe lortzen baitu Hemingwayk, trama sotil bat hari erdi ezkutu batekin lotuz, inpotentziaren «gauza misteriosua» literatura bihurtu.

ITZULTZAILEAREN OHARRA

«*Roman à clef* bat da»: horixe da liburu honetaz adituek esaten duten lehen gauzetako bat. Halakoetan, fikzioaren itxuraz, egileak egiazko gauzak kontatzen ditu, egiazko lekuak eta egoerak deskribatzen, egiazko pertsonaiak aurkezten... Interesgarria izan liteke jakitea zer dagoen obra jakin baten azpian, eta areago parte handi batean Euskal Herrian gertatzen den nobela honetan. Errealitateko erreferentzien argibideak oin-oharren bidez eman litezke, baina egokiagoa iruditu zaigu editoreari eta bioi sarrera honetan azaltzea, liburuan zehar oharren bat edo beste ere agertzen den arren.

Guretzat (euskaldunontzat), bereziki interesgarria da liburu hau. Hasieran Paris da gertalekua, baina ondoren Euskal Herrian garatzen da kontakizuna: Baionan, Donibane Lohizunen, Auritzen eta Irati ibaian, Donostian eta Iruñean. Euskal Herririk ez da hemen existitzen, ordea, Frantzia eta Espainia baizik. Euskaldunak bai: *the Basques*. Hemingwayrentzat, beste askorentzat bezala, baserritarrak.

Errealitate «erreal» azaltzeko desira horren ildotik, beraz, liburu osoan ageri dira frantsesezko eta espainierazko hitzak eta adierazpenak (oker idatziak askotan): *café* beti (frantsesez nahiz espainieraz, *café*), *aperitif* (*apéritif*), *Izzarra* likorea (*Izarra*)... Frantsesez, dena dela, ez dira hainbeste

halakoak; kale, plaza, kafetegi eta abarren izenetan ageri da frantses (edo paristar) «kolorea», ibilbideak zehaztasun osoz azaltzen baitira. Euskaraz bere horretan utzi dira horiek denak. Gaztelaniaz, berriz, etengabe agertzen dira era guztietako izenak, leku-izenak, agurrak eta abar, Iruñean bereziki, eta sanferminekin loturik. Sanferminak *fiesta* dira, txit gauza inportanteak dira *aficionado* eta *aficion*, zezenak *corraletan* daude, mutil bat *cogido* eta *muerto* gertatzen da. Espresioak ere ugari dira, batzuetan egiaz aldrebesak: *Muy buenos* (*buenos días* izan beharrean), festetako programan agertzen den *Don Manuel Orquito, the pirotecnico of esta ciudad. Globos iluminados*. Horiek guztiak, letrakera etzanez idatzita, dauden-daudenean utzi dira euskarazko bertsio honetan, liburuaren estiloaren parte bat direlakoan.

Badira kasu konplexuagoak, eta itzultzaileari erabaki zailagoak eskatzen dizkietenak. Behingoz, euskaraz izena –eta izana– duten zera batzuk, ingelesez izana bai, baina izenik ez dutelarik, perifrasi bidez emanak daude jatorrizkoan. Hala, espartinak *rope-soled shoes* dira («zapata soka-zoladunak»), eta zahatoa edo zahagia *leather wine-bottle*, edo *leather wine-bag* (hitzez hitz, «larruzko ardo-botila», «larruzko ardo-zorroa»), baita inoiz *wine-skin* ere («zahagia»). Zehaztasunaren eta naturaltasunaren aldeko hautua eginez (eta leialtasunaren kontrakoa, zer erremedio), dagokien izenaz eman dira halakoak euskaraz, alegia: «espartinak» eta «zahatoak» edo «zahagiak».

Badira kasu lokalagoak ere. Protagonistak, Donostiara etorrita, pare bat egun pasatzen ditu gure hirian, primeran, bidenabar esanda. Donostia hura ez da gaur egungoa;

pintxorik ez dago, areago, ez dago Parte Zaharrik ere, edo zehatzago esanda, ez dago Parte Zahar turistikorik. Orduko udatiarrak Kontxaren inguruan ibiltzen ziren, hango hotel handietan, hondartzan. Eta badoa halako batean protagonista itsasora, heldu da *raft* («baltsa») bateraino eta hantxe geldituko da tarte batean, eguzkia hartzen, uretan murgilduz... Baltsa hori Donostiako gabarroia dela dirudi, baina seguru-segurua ere ez da; hala, egokiagoa iruditu zait kasu honetan «baltsa» erabiltzea.

Iruñean, berriz, eta zezenketak –korridak eta tore-roak– halako garrantzia duelarik nobelan, harritzekoa da liburuaren bukaera arte kasik ez duela entzierroak izenik (eta aurrenekoz, tabernari baten ahotan): «Langile batzuk hesiak jartzen ari ziren alboko kaleak ixteko, goizean zezenak *corraletatik* askatu eta kaleetan barna etortzen zirenerako zezen-plazarako bidean».

Sanferminetako giroa xeheki deskribatua dago. Dantzariak maiz aipatzen dira; haien dantza deskribatzen da, Hemingway hainbeste famatu zuen estilo lakonikoan: *The steps were very intricate and their faces were intent and concentrated. They all looked down while they danced. Their rope-soled shoes tapped and spatted on the pavement. The toes touched. The heels touched. The balls of the feet touched.* Alegia: «Pausoak oso konplikatuak ziren eta intentzioa eta kontzentrazioa igartzen zitzaien mutilei aurpegian. Behera erreparatzen zuten denek dantzan ari zirenean. Haien espartinek gozoki kolpekatzen zuten espaloiko harria. Behatzek lurra jotzen zuten. Orpoek lurra jotzen zuten. Oin-azpiek lurra jotzen zuten». Eta musika-tresnak ere maiz ageri dira

testuan: *drums* eta *fifes* gehienbat, hau da, danborrak eta txistuak; edo txistua eta danbolina... Eta musikariak, *fifers and drummers*. Badira *reedpipes* batzuk ere. Gaitak ote dira? Zalantza horiexekin doa itzulpena. Eta zergatik, eta normalean gertatzen denaren alde erantzira, guk (euskal itzultzaileak, euskal irakurleak) egileak baino gehiago dakigulako. Baina itzultzailea izerdi batean beti.

Bestelako kasu bat da pertsonaiena, itzulpen-hautuekin zerikusik gabea zorionez. Nobelako pertsonaia nagusiak –protagonista eta bere lagunak– fikziozkoak dira, baina egiazko pertsonaietan oinarrituak. Elkarren antz handia dute fikziozkoek eta egiazkoek; egiazkoek nahi adina informazio aurkituko du nahi duenak Interneten.

Badira egiazko pertsonaia «publikoak» ere. Irati ibaiko arrantzako pasartean XX. mende hasierako zenbait idazle eta intelektual ageri dira, alkoholaren kontrako Ameriketako Estatu Batuetako legearen gaineko hizketaldian gehienbat: W.J. Bryan, J.L. Mencken, Frankie Fritsch, Manning apezpikua, Wayne B. Wheeler.

Baina toreroak dira, inondik ere, nobelako pertsonaiarik garrantzitsuenak. Pedro Romero zezenketaria, liburuko protagonistetako bat, fikziozko pertsonaia da; Goyak erretratatu zuen torero guztiz famatu baten izena eman dio idazleak, eta Cayetano Ordóñez, «Niño de la Palma», haren adiskidean dago inspiratua. Pedro Romeroaren inguruan egiazko zezenketariak ageri dira, XX. mende hasierako famatuenetako batzuk: Marcial Lalanda (adin bat dugunontzat, *Marcial tú eres el más grande...* abestikoa), Juan Belmonte handia, Algabeno (el Algabeño,

Gerra Zibilaren garaian eskuindar hiltzaile beldurgarria izan zena), (el) Gallo, Sanchez Taberno ganaduzalea (Tabernerro), eta abar. Bestalde, nobelan deskribatzen den entzierro bakarrean, zezenak gizon bat hiltzen du, eta egiaz gertatutako heriotza baten kontaketa da. Vicente Girones izena du liburuko gizonak; errealitatekoa Esteban Domeño zen, eta entzierroaren historiako lehen hildakoa izan zen. Kontatzen den gainerako guztia egi-egia da, eta haxe da, niretzat, liburuko pasarte ederrenetako bat:

«Danborrak aurretik zihoazen, eta txistu-musika zegoen, eta han zihoazen emaztea eta bi haurrak, hilkutxa zeramaten gizonen atzetik... Ondoren, Iruñea, Lizarra, Tafalla eta Zangozako dantzarien eta edaleen elkartetako kide batzuk, hiletarako gera zitezkeenak. Treneko maletabagoian ipini zuten hilkutxa, eta hirugarren klaseko bagoi ireki batean joan ziren emaztea eta bi haurrak, eserita, hirurak elkarrekin. Astindu batekin abiatu zen trena, eta gozo-gozo joan zen gero haizeak kulunkatzen zituen ale-soroetan barna, goi-lautadaren ertzetik maldan behera, Tafallarako bidean».

Tituluaz bi hitz. *The Sun Also Rises* izenburuaz kaleratu zen nobela 1926an, Estatu Batuetan, nobelaren hasierako bi aipuetako batetik hartutako esapide bat baliatuz. Hurrengo urtean, 1927an, Erresuma Batuan argitaratu zen: aipurik gabe, eta titulua, berriz, *Fiesta* zuela. Hortik, beste hizkuntzetara itzuli denean, batzuek *Fiesta* (alemanak eta gaztelaniak esate baterako), eta besteek *The Sun Also*

Rises hautatu dute. Badira biak baliatu dituztenak ere; eta britainiar bertzioak, 90etan, *Fiesta: The Sun Also Rises* izan ziren. *Fiesta* titulu egokia da; sanferminak dira, eta sanferminetan jotzen dute gailurra –lehertzen dira– protagonisten arteko harremanek eta gatazkek. Eta orobat da egokia *The Sun Also Rises*, Ecclesiasteseko aiputik harturiko esapidea, belaunaldi galduaren ideiarekin lotua. Ildo horretatik, beraz, hautatu da bertzio honen izenburu bikoitza.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet itzultze-lanotan lagundu didaten Inazio Mujika editoreari eta Miren Arratibel lankideari. Eta Anjel Lertxundiri, bere hitzaurre mardul eta jakingarriagatik.

Koro Navarro
2020ko maiatzean.

ERNEST HEMINGWAY



Fiesta

Eguzkia jaikitzen da

*Liburu hau Hadleyrentzat
eta John Hadley Nicanorrentzat da*

«Zuek denok belaunaldi galdua zarete».

—GERTRUDE STEINEK elkarrizketa batean

«Gizaldi bat badoa, gizaldi bat heldu da;
baina lurra hala-hala dago beti.
Eguzkia jaikitzen eta etzaten da,
eta bere lekura itzultzen...
Haizea badoa oro itzulika iraganez,
eta bere inguruekin bihurtzen da.
Ibai guztiak itsasora sartzen dira,
eta itsasoak ez du gaindi egiten:
ibaiak ilki diren tokira bihurtzen dira,
berriz ere turrustaka joateko».¹

—ECCLESIASTES (1:4)

1 Jean Pierre Duvoisin-en itzulpena, *Bible Saindua*. (Itzultzailearen oharra. Gainerako ohar guztiak ere itzultzailearenak dira).

LEHEN LIBURUA

1

ROBERT COHN PRINCETONGO pisu ertaineko boxeotxapelduna izan zen behin. Ez pentsa inpresio handirik egiten didanik niri pisu ertainak boxeo-titulu gisa, baina Cohnentzat asko esan nahi zuen. Boxeoa bost axola zitzaion hari: egia esatera, ez zitzaion batere gustatzen, baina oinazez eta ardura handiz landu zuen, Princetonen judu gisa tratatzen zutelarik, hark sentiarazten zion gutxiagotasun- eta lotsaizun-sentipenari aurre egiteko. Halako barne-kontsolamendu bat sumatzen zuen jakinik lurrera bota zezakeela berarekin harropuzkeriaz jokatzeko edonor, nahiz eta, oso herabea eta guttiz mutil jatorra zelarik, behin ere ez zen gimnasiotik kanpo borrokatzen. Spider Kellyren dizipulurik gogokoena izan zen. Spider Kellyk luma-pisuak balira bezala erakusten zien borroka egiten bere mutil gazte guztiei, berrogeita hamabi libra nahiz ehun eta bi libra pisatu. Baina ematen zuen Cohni hura ondo zegokiola. Zinez bizkorra zen. Hain ona zen, non Spiderrek berehala jarri baitzuen goi-mailako lehiakideen kontra borrokan, eta Cohni sudurra zapala geratu zitzaion betiko. Hark areagotu egin zuen Cohnnek boxeolari zion

ezinikusia, baina nolabaiteko poz bitxi bat ere eman zion, eta haren sudurrari on egin zion inondik ere. Princetonen egin zuen azken urtean gehiegi irakurtzen zuen eta betaurrekoak jantzi behar izan zituen. Cohne z gogoratzen den haren ikaskiderik ez dut nik ezagutu. Pisu ertaineko boxeo-txapelduna izan zenik ere ez dira gogoratzen.

Niri errezeloa sortzen didate pertsona zintzo eta soil guztiek, haien istorioak koherenteak direnean bereziki, eta susmoa izan dut beti egiaz izan ote zen Robert Cohn pisu ertaineko boxeo-txapelduna, ez ote zion zaldi batek aurpegia zapaldu, edo haren amak ez ote zuen sustoren bat hartu edo ikuskariren bat ikusi, edo Cohne ez ote zuen zerbaitekin txoke jo umetan, baina azkenean lortu nuen istorioa egiaztatzea, Spider Kellyren ahotik. Spider Kellyk, Cohne z gogoratu ez ezik, sarritan pentsatzen omen zuen zertan ote zebilen.

Robert Cohn, aitaren aldetik, New Yorkeko familia judu aberatsenetako bateko semea zen, eta familia zaharrenetako batekoa amaren aldetik. Princetonerako prestatu zen eskola militarrean –oso hegal ona izan zen hango futbol-ekipoan–, inork ez zion bere arraza gogorarazi. Inork ez zion inoiz sentiarazi judua zenik, eta, hortaz, beste guztiak ez bezalakoa, Princetoneran joan zen arte. Mutil jatorra zen, mutil adiskidetsua, eta oso lotsatia, eta horrek mikaztu egiten zuen. Boxeoan kanporatzen zuen mikaztasun hura, eta bere buruaren kontzientzia mingarria eta sudurra zapala zituela atera zen Princetonetik, eta berearekin jatorra izan zen lehen neska esposatu zuen. Bost urte eman zituen ezkontuta, hiru haur izan zituen, galdu

zituena aitak utzi zizkion berrogeita hamar mila dolarretik gehienak –gainerako guztia amaren esku gelditu zen–, eta, etxe barruko zorionik ezean, emazte aberats batekin, panorama aski desatsegin batean gogortu zen; eta noiz, eta Cohnek emaztea uztea erabaki zuenean, emazteak bera utzi eta alde egin zuen miniatura-margolari batekin. Hilabeteak baitzeramatzan Cohnek emaztea utziko ote zuen pentsatuz –eta emaztea beraz gabetzea krudelegia zelakoan ez zuen utzi–, biziki osasuntsua gertatu zitzaion hura joatea.

Antolatu zen dibortzioa eta Robert Cohn kostaldera joan zen. Kalifornian jende literaturazalea ezagutu zuen, eta, geratzen baitzitzaion zer edo zer berrogeita hamar mila dolarretatik, handik gutxira arte-kritikako aldizkari baten babeslea zen. Hasieran Carmelen argitaratzen zen aldizkaria, Kalifornian, eta bukaeran Provincetownen, Massachusettsen. Ordurako, Cohn, zeina ordu arte aingeru bat bezala ikusia baitzen, eta zeinaren izena aholkularitza-batzordeko kide gisa huts-hutsik agertzen baitzen argitaratze-orrian, aldizkariaren zuzendari bakarra zen. Beraren dirua zen eta konturatu zen gustatzen zitzaiola edizioaren boterea. Atsekabetuta geratu zen aldizkaria gehiegitxo garestitu eta utzi behar izan zuenean.

Garai hartan, alabaina, bazituen Cohnek beste kezkabide batzuk ere. Eroria zen aldizkariarekin batera gora egitea espero zuen dama baten eskuetan. Indar handiko emakumea izaki, Cohnek ez zuen itzuri egiteko aukerarik. Seguru zegoen gainera emakume hura maite zuela. Ikusi zuenean damak aldizkariak ez zuela gora

egingo, apur bat nahigabetu zen Cohnekin eta erabaki zuen oraindik eskuragarri zegoena hartuko zuela, eta, hala, tematu zen Europara joan behar zutela, han Cohnek idatzi ahal izango zuelakoan. Etorri ziren Europara, non hezia baitzen dama, eta hiru urte eman zituzten bertan. Hiru urte haietatik, aurrenekoa bidaiatzen eman zuten, azken biak Parisen. Robert Cohnek bi lagun zituen, Braddocks eta ni. Braddocks haren literatura-laguna zen. Ni, haren tenis-laguna.

Cohn bere esku zeukan dama –Frances zuen izena–, bigarren urtearen bukaera aldera, galtzen ari zela garai batean zuen itxura konturatu zen, eta aldatu egin zen Robertengana zuen jarrera, jabetza eta esplotazio arduragabe batetik, Cohnek berarekin ezkondu behar zuelako erabaki irmora. Denbora hartan diru-laguntza bat ematen hasi zitzaion ama Roberti, hirurehun dolar inguru hilean. Bi urte eta erdiz ez dut uste Robert Cohnek beste emakume bati begiratu zionik. Aski zoriontsua zen, salbu eta, European bizi zen jende asko bezala, nahiago izango zuela Estatu Batuetan egon, eta idazketa aurkitu zuela. Nobela bat idatzi zuen, eta ez zen kritikariak geroago esan zuten bezain txarra, nahiz eta oso nobela kaskarra izan. Cohnek liburu asko irakurtzen zituen, bridgean aritzen zen, tenisean aritzen zen, eta boxeoa ere bai, hiriko gimnasio batean.

Hirurok elkarrekin afaldu genuen gau batean konturatu nintzen aurrenekoz damak Cohnengana zeukan jarreraz. L'Avenue-n afaldu eta gero Cafê de Versailles-era joan ginen kafea hartzera. Zenbait *fine* edan genuen kafearen

ondoren, eta nik esan nuen alde egin beharra neukala. Afarian Cohn esaten aritu zen norabait joan behar genuela biok asteburu bateko txangoan. Hiritik atera nahi zuen ibilaldi eder bat egitera. Nik proposatu nuen Estrasburgora joatea hegazkinez eta Sainte-Odilerara igotzea, edo Alsaziako beste lekuren batera. «Neska bat ezagutzen diat Estrasburgon hiria erakutsi diezagukeena», esan nuen.

Ostiko txiki bat jo zidan norbaitek mahaiaren azpitik. Ustekabean izan zela pentsatuz, jarraitu nuen: «Bi urte bazeramatzak han eta jakin beharreko gutzia zakik hiriaz. Neska aparta duk».

Beste ostiko txiki bat jo zidaten mahaiaren azpitik, eta, begiratuta, han ikusi nuen Frances, Roberten dama, kokotsa jasota eta aurpegia zurrun.

—Zer arraio —esan nuen—, zergatik joan behar dugu Estrasburgora? Brujasera joan gaitzekek, edo Ardenetara.

Cohnek lasaitua ematen zuen. Ez zidaten beste ostikorik jo. Gabon esan, eta atera egin nintzen. Cohnek esan zuen egunkari bat erosi nahi zuela eta nirekin etorriko zela kale-kantoiraino.

—Jainkoaren izenean —esan zuen—, zergatik aipatu duk Estrasburgoko neska hori? Ez al duk Frances ikusi?

—Ez, zer ba? Nik neska estatubatuar bat ezagutzen badut Estrasburgon bizi dena, zer demontre inporta zaio hori Francesi?

—Berdin duk zer neska den. Edozein neska. Ezingo nindukek joan, eta kito.

—Ez txorakeriarik esan.

–Hik ez duk Frances ezagutzen. Edozein neska, berdin duk zein. Ez al duk ikusi nolako muturra jarri duen?

–Tira, konforme –esan nuen–, Senlisa joango gaituk.

–Ez haserretu.

–Ez nauk haserretu. Senlis toki ona duk eta Grand Cerfen egon gaitzekek eta basoetan ibilaldi bat egin eta gero etxera etorri.

–Ondo, hori primeran zagok.

–Bueno, bihar ikusiko haut, pistetan –esan nuen.

–Gabon, Jake –esan zuen Cohnnek, eta kafetegira abiatu zen berriz.

–Egunkaria erostea ahaztu zaik –esan nuen.

–Egia. –Nirekin etorri zen izkinako kioskoraino–. Ez hago haserre, ezta, Jake? –Nigana jiratu zen egunkaria eskuan hartuta.

–Ez, zergatik egon behar nuen haserre?

–Tenisean ikusiko haut –esan zuen. Kafetegira itzultzen ikusi nuen bere egunkaria hartuta. Nik estimatzen nuen Robert, eta argi zegoen andreak gorriak pasarazten zizkiola.

2

NEGU HARTAN ROBERT COHN Estatu Batuetara joan zen bere nobelarekin, eta argitaratzaile aski on batek onartu zion. Aditu nuenez, ikaragarritzko eskandalua sortu zen Cohnnek martxa egin zuela-eta, eta nik uste dut orduantxe galdu zuela Francesek, New Yorken hainbat emakumek

atseginkiro jokatu baitzuten Cohnekin, eta aldatua itzuli zen arrunt. Inoiz baino gogokoago zituen Estatu Batuak, eta jadanik ez zen hain gizon tolesgabea, ezta hain jatorra ere. Argitaratzaileek biziki goretsi zuten haren nobela, eta Cohni burura igo zitzaion. Gero zenbait emakume saiatu ziren berarekin atseginak izaten, eta aukerak zabaldu zitzaizkion. Lau urtez, izan ere, bere emaztearengana erabat mugatuak egon ziren Cohnen aukerak. Hiru urtez, edo ia hiru urtez, ez zuen Francesengandik harago ikusi. Badakit seguru ez zela bizitza osoan inoiz maitemindu.

Hisiak jota ezkondu zen Cohn, unibertsitatean pasatu zuen bolada ezin txarragoaren ondorioz, eta hisiak jota hartu zuen Francesek, Cohnek jakin zuenean ez zela dena izan bere lehen emaztearentzat. Cohn ez zegoen oraindik maitemindua baina konturatzen zen erakargarria zela emakumeentzat, eta ez zela jainkozko mirari hutsez gertatzen emakume bat beraz arduratzea eta berarekin bizi nahi izatea. Ideia hark hainbeste aldatu zuen, non jadanik ez baitzen atsegina gertatzen Cohnekin egotea. Bestalde, karta onak atera eta ehunka dolar batzuk irabazi zituen berez egin zitzakeenak baino apustu altuagoak eginez, bridge-joko aski gogorretan, bere New Yorkeko ezagunekin. Harrezkero harrotu egiten zen bere jokoagatik, eta maiz esaten zuen gizon batek beti atera dezakeela bizimodua bridgean arituz, premia izanez gero.

Bazen beste gauza bat ere. W.H. Hudsonen liburuak irakurtzen aritua zen. Eginkizun tolesgabea dirudi, baina Cohnek behin eta berriz irakurri zuen *The Purple Land*. *The Purple Land* oso liburu beltza da bizitzan beranduegi

irakurriz gero. Jaun ingeles akasgabe baten irudimenezko amodio-abentura zoragarriak kontaktzen ditu lurralde guztiz erromantiko batean, eta agertokia oso ondo deskribatua dago. Hogeita hamalau urteko gizon batentzat, adin bereko gizon bat frantses komentu batetik atera eta, Algerren libururik praktikoenen sorta oso batez horniturik, zuzen-zuzenean Wall Streeten sartzea bezain egokia litzateke liburu hori bizitzan gida-liburutzat hartzea. Cohnek, nik uste, R.G. Dun-en txosten bat izan balitz bezain literalki hartu zuen *The Purple Landeko* hitz bakoitza. Ulertuko nauzue, bazituen errezelo batzuk, baina liburua oro har zentzuzkoa zen harentzat. Besterik ez zuen behar abian jartzeko. Ez nintzen konturatu zenbateraino, egun batean nire bulegora etorri zen arte.

—Kaixo, Robert —esan nuen—. Ni animatzera etorri al haiz?

—Nahi al duk Hego Amerikara joan, Jake? —galdetu zidan.

—Ez.

—Zergatik ez?

—Ez zakiat. Inoiz ez diat hara joan nahi izan. Garestiegia duk. Nahi dituan hegoamerikar guztiak ikus ditzakek gainera Parisen.

—Ez dituk egiazko hegoamerikarrak.

—Guztiz errealak iruditzen zaizkidak niri.

Itsasontziarekin lotura egiten zuen trenna harrapatu behar nuen nik astebeteko istorioak eramateko, eta erdiak besterik ez neuzkan idatziak.

—Ba al dakik eskandaluren baten berri? —galdetu nuen.

–Ez.

–Hire ezagun asaldatuetatik ez al du inork dibortziatu behar?

–Ez. Adi ezak, Jake: ni bion gastuez arduratuz gero, etorriko al hintzateke nirekin Hego Amerikara?

–Zergatik ni?

–Hik egiten duk espainieraz. Eta entretenigarriagoa izango duk biak joanda.

–Ez –esan nuen–. Niri hau gustatzen zaidak eta udan Espainiara joango nauk.

–Bizitza osoa eman diat horrelako bidaia bat egin nahian –esan zuen Cohnnek. Eseri egin zen–. Zaharregia izango nauk bidaia hori egin ahal izan baino lehen.

–Ez izan ergela –esan nuen–. Hi nahi duan tokira joan haiteke. Dirua gogotik daukak.

–Bazakiat. Baina kemenik ez diat abian jartzeko.

–Eutsi goiari –esan nuen–. Pelikuletan bezalakoxeak dituk herrialde guztiak.

Baina pena ematen zidan gizonak. Pattal zebilen.

–Oso gogorra egiten zaidak pentsatzea nire bizitza oso-oso bizkor doala eta ez naizela egiaz bizitzen ari.

–Inork ez dik bizitza oso-osorik bizitzen, zezenketariak kenduta.

–Niri ez zaizkidak zezenketariak interesatzen. Hori ez duk bizimodu normala. Hego Amerikara joan nahi diat, mendialdera. Primerako bidaia egin genezakek.

–Burruratu al zaik sekula ehizara joatea Ekialdeko Afrika britainiarrera?

–Ez; ez litzaidakek gustatuko.

–Hirekin joango nindukek.

–Ez; ez zaidak interesatzen.

–Hori gertatzen zaik gai horri buruzko libururik leitu ez dualako. Segi, leitu ezak liburu bat printzesa beltz distiratsu ederrekiko amodio-kontuez betea.

–Nik Hego Amerikara joan nahi diat.

Bazuen Cohnnek ukitu judu bat, gogorra, egoskorra.

–Goazemak behera, zerbait edatera.

–Ez al haiz lanean ari?

–Ez –esan nuen.

Eskaileretan behera joan ginen, behe-solairuko kafetegira. Konturatua nintzen hura zela lagunak gainetik kentzeko modurik onena. Kopa bat hartu eta gauza bakarra esan behar zenuen: «Tira, ba: bulegora itzuli eta kable batzuk bidali behar ditiat», eta kito. Oso garrantzitsua da halako irtenbide airosten berri izatea egunkarien munduan, non etikaren parte guztiz inportantea baita inoiz ez ematea lanean ari zaren itxura. Hala ba, jaitsi ginen tabernara eta whiskia sodarekin hartu genuen. Paretaren kontra jarritako apaletan zeuden botilei erreparatu zien Cohnnek.

–Toki ona duk hau –esan zuen.

–Likorea erruz zagok. –Bat etorri nintzen.

–Aizak, Jake. –Cohn aurreraka makurtu zen, barran bermatuta–. Hik ez al duk inoiz sentitzen bizitza osoa pasatzen ari zaiala eta ez duala aprobetxatzen? Konturatzen haiz dagoeneko bizitu duala bizitzeko daukaan bizitzaren erdia?

–Bai, konturatzen nauk tarteka.

–Ba al dakik beste hogeita hamabost bat urteren ondoren hilak egongo garela?

–Zer demontre diok, Robert? –esan nuen—. Zer demontre diok?

–Serio ari nauk.

–Ni ez nauk horretaz kezkatzen –esan nuen.

–Kezkatu behar huke.

–Izan diat zertaz kezkatu, uneren batean edo bestean. Baina bukatu dituk nire kezkak.

–Horra ba, nik Hego Amerikara joan nahi diat.

–Aizak, Robert, beste herrialde batera joanda ez dituk gauzak aldatzen. Nik saiatu diat hori dena. Ezin diok heure buruari itzuri egin leku batetik bestera mugituz. Halaxe duk.

–Baina hi ez haiz behin ere izan Hego Amerikan.

–Pikutara Hego Amerika! Orain hagoen bezala joango bahintz hara berdin-berdin jarraituko likek kontuak. Hiri ona duk hau. Zergatik ez haiz hasten hire kasa bizitzen Parisen?

–Nazka-nazka egina nagok Parisekin, eta nazka-nazka egina Quartier-arekin.

–Ez etorri Quartier-era. Mugi hadi heure kabuz eta ikusi zer gertatzen zaian.

–Ezer ez zaidak gertatzen. Behin bakar-bakarrik ibili ninduan gau oso batez eta ez zuan ezer ere gertatu, salbu eta bizikletaz zihoan polizia batek gelditu eta paperak eskatu zizkidala.

–Ez al zen atsegina hiria gauez?

–Bost inporta zaidak Paris niri.

Halaxe zeuden gauzak. Niri pena ematen zidan Cohnnek, baina kontu hartan ezin zen ezer ere egin, zuzenean topo egiten baitzen haren bi egoskorkeriarekin: Hego Amerikak konpon zezakeen kontua eta ez zitzaion Paris gustatzen. Lehenengo ideia liburu batetik atera zuen, eta bigarrena ere liburu batetik aterea izango zen noski.

–Horra ba –esan nuen–, gora joan eta kable batzuk bidali behar ditiat.

–Egiatan joan behar duk?

–Bai, kable horiek bidali beharra zauzkaat.

–Inporta zaik ni ere gora igo eta hire bulegoan eser-tzen banaiz?

–Ez, igo hadi.

Kanpoko gelan eseri eta egunkariak irakurtzen aritu zen, eta bi orduz lanean gogor jardun genuen zuzendaria, argitaratzailea eta hirurok. Sailkatu nituen gero kalko-paperak, sinatu nituen artikuluak, sartu nituen bi gutun-azal handitan eta mutil bati deitu nion Gare St. Lazare-ra eramán zitzan. Beste gelara joan nintzen eta hantxe zegoen Robert Cohn besaulkian lotan. Burua besoen artean zuela zegoen lo. Ez nuen esnatu nahi, baina bulegoa itxi eta ospa egin nahi nuen. Esku bat jarri nion sorbaldan. Cohnnek buruari eragin zion. «Ezin diat halakorik egin», esan zuen, eta barrurago sartu zuen burua besoen artean. «Ezin diat halakorik egin. Ezerk ez zidak halakorik eginaraziko».

–Robert –esan nuen, eta astindu txiki bat eman nion sorbaldatik helduta. Cohnnek gora begiratu zuen. Irribarre egin zuen eta begiak itxi-ireki zituen.

–Ozen mintzatu naiz oraintxe?

Fiesta: Eguzkia jaikitzen da

- Zerbait esan duk. Baina ez zuan entenditzen.
- Jainkoa, bai amets nazkagarria!
- Idazmakinak lo harrarazi dik?
- Hala uste diat. Gauean ez diat batere lorik egin.
- Zer zela-eta?
- Hizketan –esan zuen.

Irudika nezakeen. Badut usadio nazkagarri bat, nire adiskideen logelako eszenak irudikatzea. Cafè Napolitain-era joan ginen *apéritif* bat hartzera eta arratsaldean Boulevardean joan-etorrian ibiltzen den jendea ikustera.

3

UDABERRIKO GAU EPEL BAT ZEN eta Napolitain-eko terrazako mahai batean eserita geratu nintzen Robert joan ondoren, ilunabarra eta argi-iragarkiak pizten ikusiz, eta trafikoko seinale gorri-berdeak –geldi, aurrera–, eta jendetza pasaeran, eta kotxeak taxi-trafiko sarriaren ertzetik, kinki eta kanka apoak, eta *les poules*, banaka edo binaka pasatzen arratsaldeko otorduaren bila. Itxura ederreko neska bati begira egon nintzen, nola mahaiaren ondotik igarotzen eta aldentzen zen, eta bistatik galdu nuen, eta beste bati begiratu nion, eta gero lehenengoa ikusi nuen bazetorrela berriz. Beste behin ere igaro zen nire aurretik eta begietara erreparatu nion, eta neska etorri eta nire mahaian eseri zen. Zerbitzaria inguratu zen.

- Horra ba, zer edan behar dun? –galdetu nion.
- Pernod.